

---

## **GOLD 2 Programa**

### **Ikasleak**

- Normalean hamaika eta hamabi urte bitarteko haurrak izango dira. (Ez dituzte hamahiru urte beteko gabonak baino lehen).
- Gehienak gurekin ikasten izan dira zenbait urtez.
- Hizkuntz-eskuduntzei dagokionez A2 mailan daude.

### **Ikastaroaren nondik norakoak**

Klaseek, astean, bi ordu eta erdiko iraupena izango dute (guztira 75 ordu). Ikastaroan, ikasleen adinari egokituta, lau trebetasunak landuko dira eta ahoskeraren garapenean esfortzu handia egingo da. Ikasleek hizkuntza klasean benetazko tresna gisa erabilia eta zentzumen anitzeko ariketa motibatzaileen bidez ikasiko dute.

### **Ikastarorako materiala**

Kid's Box 5 Ikasle Liburua eta Ariketa Liburua. Jolly Phonics Eskuliburua eta kode alfabetikoa alfabetizazio eta ahoskera gaitasunen garapenerako erabiliko dira.

### **Ebaluaziorako ariketak**

- 1.Hiruhilekoa: Ikasgelako hizkuntza.
- 2.Hiruhilekoa: Nire buruaren inguruan.
- 3.Hiruhilekoa: Ikasleen interakzioa.
- Ikasturte amaierako azterketa Cambridgeko KET A2 azterketan oinarrituta dago. Hau gainditzeko %70a lortu behar da.

Behelaldean zehazten diren **ikasketa helburuak** CEFRek (Common Framework of References for Languages) emandako ideietan oinarritzen dira eta ikasleek ikastaroan zehar izango duten garapenaren aurreikuspenean oinarritzen dira.

### **Mintzamina: Ahozko interakzioa**

Ikasgelako interakzio ohikeria guztietan parte hartzeko gai naiz, ikasgaiaren hasieratik amaieraraino, behar ditudan gauzen inguruan galdetuz eta irakasleak edota ikaskideek egiten dituzten galderak erantzunez.
Eguneroko gauzen inguruan mintzatzeko gai naiz, hala nola, nire buruaren inguruan, nire familia, non bizi naizen, eguneroko zein asteko ohikerien eta gustu eta jardueren inguruan... Era berean, nire ikaskideei gai hauen guztien inguruan galdetzeko gai ere naiz.
Ikaskideekin elkar aritzeko gai naiz, galdetegien bidez galderak eginez eta erantzunez eta rol jokoetan parte hartuz jarraitzeko modelo bat badut (liburuan azaltzen den istorioren bat) eta praktikatu badut (adibidez, egin behar ditudan galderak errepikatuz).
Galderak egin eta erantzun ahal ditut eta ikasi ditudan gaien inguruan ideiak eta informazioa trukatzeko gai naiz (adibidez, janaria, kirolak, lanbideak, gustuak, oporretan egiten diren jarduerak edota kultura desberdinak).

**Ahozko ekoizpena**

Nire burua, nire familia, non bizi naizen eta hobbia eta kirolak deskribatzeko gai naiz. Eskolako ikasgai gustokoenen eta gustoko ditudan janarien inguruan hitzegi ahal dut eta zergatik ditudan gustoko ere arrazoi dezaket.

Ezagutzen dudan gai bat klase aurrean aurkezteko gai naiz, beti ere alde zuzenarekin aurretik prestatu badut eta praktikatu badut.

Istoria laburrak edota pasatako gertaerak kontatzeko gai naiz.

Nire hiri/herrialdearen inguruak aholkuak emateko gai naiz, eta baita bertako ohitura eta tradizioen inguruan zenbait gauza esateko ere.

**Entzumena**

Ikasgelan ematen diren argibide gehienak jarraitzeko gai naiz, baita ez-ohikoenak ere, nahiz eta batzutan galderaren bat egiteko beharra dudan egin beharrekoak argitzeke.

Testuak edota hizketaldiak entzuterakoan informazio garrantzitsuenak ulertu eta ateratzeko gai naiz eta irakasleak ematen digun istorio eta informazioen punturik garrantzitsuenak ulertzeko gai ere naiz.

Norbait hitzegiten ari denean puntu garrantzitsuenak ulertzeko gai naiz, nahiz eta ulertzen ez ditudan zenbait hitz esan.

Pelikula bat ikustean edota abesti bat entzutean ia gauza gehienak ulertzen dituzket.

**Irakurmena**

Ezagutzen ditudan gaien inguruko informazio testu labur zein zabalak ulertzen dituzket, hala nola, janaria, kirolak, lanbideak, gustuak, oportunitate egiten diren jarduerak edota kultura desberdinak.

Testu mota desberdinak irakur ditzaket, adibidez, istorioak, artikulak edota gutunak. Gainera, puntu garrantzitsuenak ezezik, zenbait xehetasun ere ulertzeko gai naiz.

Irudi lagungarrien bat badago zenbait istorio ulertzeko gai naiz.

Nire mailarako (A1-A2) diseinatutako testuak irakur ditzaket.

**Idazmena**

Ezagutzen ditudan gaien inguruan paragrafo laburrak idatz ditzaket.

Ekitaldi, pasatako gertaera edota esperientzia pertsonalen deskripzio laburrak idazteko gai naiz.

Istoria laburrak, gutunak eta emailak idazteko gai naiz.

**Hizkuntz gaitasunak**

Oinarriko esaldi ereduak erabili ahal ditut, oinarriko lotura mekanismoekin, eguneroko egoeretan komunikatu ahal izateko.

Ezagutzen ditudan egoera eta gaien inguruan aritzeko nahikoa hiztegia daukat.

Egitura sinple laburrak erabiltzeko gai naiz, nahiz eta oraindik ere zenbait akats egin.